Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala | Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko abuztuaren 10a, asteazkena — 152 — Miércoles, a 10 de agosto de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ORDIZIAKO UDALA

*2022an Euskara arloko dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaileak. BDNS (Identif.): 641888.*

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/641888).

*Ordiziako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko ekainaren 30eko Ebazpenaren laburpena, 2022an Euskara arloko dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaileak onesten dituena.*

1. *Oinarrien xedea.*

Oinarri hauen xedea da Ordiziako Udaleko Euskararen Delegazioak kudeatzen dituen hainbat programaren kontura ematen diren dirulaguntzak emateko oinarriak arautzea. Dirulaguntza horiek ondoren zehazten direnak izango dira:

a) Euskara ikasten edo hobetzen dihardutenei dirulaguntzak.

b) Udako euskarazko ikastaroetara joateko dirulaguntzak (UEU, EHU, Hik hasi...).

c) Merkataritza, ostalaritza eta enpresa alorrean euskarazko errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskaraz jartzeagatik eta udalerriko elkarteek webguneak euskaraz jartzeagatik dirulaguntzak.

d) Merkataritza eta ostalaritza alorrean TicketBai fakturazio sistemarako euskarazko softwarea jartzeko dirulaguntzak.

e) Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroa egiteko herritarrei dirulaguntzak ematea eta kirol arloko hezitzaileei berariazko prestakuntza euskaraz jasotzeko dirulaguntzak ematea.

f) Udalerriko kirol elkarteei euskarazko formazioa emateagatik dirulaguntzak ematea.

Dirulaguntza hauen oinarriak dagozkien eranskinen bidez arautzen dira.

2. *Araudia.*

Laguntzen emakidak nahiz dirulaguntza emailearen eta onuradunen arteko lege harremanak oinarri hauen arabera eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dagoen araudiaren arabera xedatuko dira.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko gaietarako Ordiziako Udaleko Dirulaguntzak arautzeko Ordenantza eta azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Legea hartuko dira oinarri.

3. *Onuradunak.*

Dirulaguntza motaren arabera hauxek onuradunak, hurrenez hurren:

## AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA

*Bases reguladoras del procedimiento de concesión de subvenciones del área de Euskera para el año 2022. BDNS (Identif.): 641888.*

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b y 20.8.a de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/641888).

*Extracto de la Resolución de 30 de junio de 2022, de la Junta de Gobierno Local del ayuntamiento de Ordizia, por la que se aprueban las bases reguladoras del procedimiento de concesión de subvenciones del área de Euskera para el año 2022.*

1. *Objeto.*

Es objeto de las presentes bases la regulación de las subvenciones que mediante ciertos programas gestiona el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Ordizia. Se concederán subvenciones para los siguientes ámbitos:

a) Subvenciones para el aprendizaje del euskera.

b) Subvenciones para acudir a cursos de verano en euskera (UEU, EHU, Hik Hasi...).

c) Subvenciones para comerciantes, hosteleros/as y empresarios/as por colocar rótulos, imagen corporativa y páginas web en euskera y para asociaciones del municipio por publicar páginas web en euskera.

d) Subvenciones en el área de comercio y hostelería para la instalación de software en euskera para el sistema de facturación TicketBai.

e) Subvenciones para obtener el título de monitor/a o director/a de tiempo libre y subvenciones para personas educadoras o entrenadoras del ámbito deportivo para realizar cursos de formación deportiva en euskera.

f) Subvenciones para asociaciones deportivas del municipio para la impartición de formación en euskera.

Las bases de las citadas subvenciones se regularán por medio de sus respectivos anexos.

2. *Normativa aplicable.*

La concesión de las ayudas y la relación jurídica entre el otorgante y la persona beneficiaria se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

En todo lo no previsto en las presentes bases, será de aplicación la Ordenanza Reguladora de las Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia y la Ley 38/2003 de 17 de noviembre General de Subvenciones.

3. *Beneficiarios.*

En función del tipo de subvención, los beneficiarios son respectivamente:

EK\CV GAO-I-2022-05180

a) Euskara ikasten edo hobetzen dihardutenei dirulaguntzak:

16 urtez gorako Ordizian erroldutako nahiz erroldatu gabeko herritarrak. Erroldatu gabekoen kausan, gutxienez sei hilabetez egon behar dute lanean Ordiziako enpresa, merkatal establezimendu edota kirol-talde batean, diruz laguntzea eskatzen den ikastaroa amaitzen den datarako.

b) Udako euskarazko ikastaroetara joateko dirulaguntzak (UEU, EHU, Hik Hasi...):

Ordizian erroldatutako ikasleak, erretiratuak edo langabezian dauden herritarrak.

c) Merkataritza, ostalaritza eta enpresa alorrean euskarazko errotuluak, irudi korporatiboa eta webguneak euskaraz jartzeagatik eta udalerriko elkarteek webguneak euskaraz jartzeagatik dirulaguntzak:

Ordizian helbide fiskala daukaten pertsona fisiko edo juridikoak, bai eta bere jarduera ekonomikoa Ordiziako udalerrian dauden lokaletan egiten dutenak ere.

d) Merkataritza eta ostalaritza alorrean TicketBai fakturazio sistemarako euskarazko softwarea jartzeko dirulaguntzak:

Ordizian helbide fiskala daukaten pertsona fisiko edo juridikoak, bai eta bere jarduera ekonomikoa Ordiziako udalerrian dauden lokaletan egiten dutenak ere.

e) Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroa egiteko herritarrei dirulaguntzak ematea eta kirol arloko hezitzaileei berariazko prestakuntza euskaraz jasotzeko dirulaguntzak ematea:

— Aisialdiko begirale eta zuzendari ikastaroa egin dutenen kasuan, Ordiziako udalerrian erroldaturik dauden pertsona fisikoak.

— Kirol arloko euskarazko formakuntza egin dutenen kasuan, Ordiziako kirol elkarte bateko hezitzaile edo entrenatzailea izatea.

f) Udalerriko kirol elkarteei euskarazko formazioa emateagatik dirulaguntzak ematea:

Ordiziako kirol elkarteak, Udalarekin euskara sustatzeko hitzarmena sinatuta dutenak.

*4. Finantzaketa.*

Aurreikusitako zenbatekoa guztira 43.500 €koa da eta Ordiziako Udaleko 2022 ekitaldiko hainbat partidari egotziko zaizkio:

— 1 480.02.335.00.0141 2022: 17.250 €.

— 1 480.03.335.00.0141 2022: 750 €.

— 1 480.04.335.00.0141 2022: 2.000 €.

— 1 471.04.335.00.0141 2022: 20.000 €.

— 1 471.01.335.00.0141 2022: 3.500 €.

*5. Eskaerak non aurkeztu.*

Dirulaguntza motaren arabera eskaerak honako leku hauetan aurkeztu ahal izango dira:

— Aurrez aurre, Ordiziako Udaleko Herritarren Arreta bulegoan, Kale Nagusia 24.

— Elektronikoki, udal webgunetik: www.ordizia.eus. Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@k-Q, NAN elektronikoa, Izenpe txartela...) edukitzea beharrezkoa da.

Ordizia, 2022ko ekainaren 30a.—Tokiko Gobernu Batzarra.
(5180)

a) Subvenciones para el aprendizaje del euskera:

Personas empadronadas o no empadronadas en Ordizia mayores de 16 años. En el caso de no empadronadas, deberán estar trabajando al menos seis meses en una empresa, establecimiento comercial o club deportivo de Ordizia, a la fecha de finalización del curso para el que se solicita subvención.

b) Subvenciones para acudir a cursos de verano en euskera (UEU, UPV, Hik Hasi):

Personas estudiantes, jubiladas o en paro empadronadas en Ordizia.

c) Subvenciones para comerciantes, hosteleros/as y empresarios/as por colocar rótulos, imagen corporativa y páginas web en euskera y para asociaciones del municipio por publicar páginas web en euskera:

Las personas físicas o jurídicas con domicilio fiscal en Ordizia, así como aquellas que desarrollen su actividad económica en locales situados en el término municipal de Ordizia.

d) Subvenciones en el área de comercio y hostelería para la instalación de software en euskera para el sistema de facturación TicketBai:

Las personas físicas o jurídicas con domicilio fiscal en Ordizia, así como aquellas que desarrollen su actividad económica en locales situados en el término municipal de Ordizia.

e) Subvenciones para obtener el título de monitor/a o director/a de tiempo libre y subvenciones para personas educadoras o entrenadoras del ámbito deportivo para realizar cursos de formación deportiva en euskera:

— Las personas físicas empadronadas en el municipio de Ordizia que hayan realizado el curso de monitor/a y director/a de tiempo libre.

— En el caso de haber realizado formación deportiva en euskera, ser formador o entrenador de una sociedad deportiva de Ordizia.

f) Concesión de subvenciones a asociaciones deportivas del municipio para la organización de formación en euskera:

Las agrupaciones deportivas de Ordizia que tengan suscrito convenio con el Ayuntamiento para la promoción del euskera.

*4. Financiación.*

El importe total previsto asciende a 43.500 €, imputables a diversas partidas del ejercicio 2022 del Ayuntamiento de Ordizia:

— 1 480.02.335.00.0141 2022: 17.250 €.

— 1 480.03.335.00.0141 2022: 750 €.

— 1 480.04.335.00.0141 2022: 2.000 €.

— 1 471.04.335.00.0141 2022: 20.000 €.

— 1 471.01.335.00.0141 2022: 3.500 €.

*5. Lugar de presentación de solicitudes.*

En función del tipo de subvención, las solicitudes podrán presentarse en los siguientes lugares:

— Presencialmente, en la oficina de Atención a la Ciudadanía del Ayuntamiento de Ordizia, Kale Nagusia 24.

— Electrónicamente, desde la web municipal www.ordizia.eus. Para realizar el trámite electrónicamente es necesario disponer de un certificado digital (B@k-Q, DNI electrónico, tarjeta Izenpe...).

Ordizia, a 30 de junio de 2022.—La Junta de Gobierno Local.
(5180)

EK\CV GAO-I-2022-05180